



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 28a

140. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Moderna Planari buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Moderna Planari buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Moderna Planari buruzkoa (2008-2012), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Moderna Planari buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
 - II.** Plana eta moderna fundazioa (4. or.).
 - II.1. Aurrekariak (4. or.).
 - II.2. Moderna Plana (5. or.).
 - II.3. Moderna Fundazioa (5. or.).
 - III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (7. or.).
 - IV.** Ondorioak eta gomendioak (7. or.).
 - V.** Iruzkinak (10. or.).
 - V.1. Nafarroako Gobernuak Moderna Planari egindako ekarpena (10. or.).
 - V.2. Planaren prestaketa eta edukia (11. or.).
 - V.3. Moderna Fundazioa (16. or.).
 - V.4. Moderna Fundazioak garatutako jarduerak (20. or.).
 - V.5. Fundazioaren kontuak (26. or.).
- Moderna Fundazioko zuzendariak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (29. or.).
- Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emaniko erantzuna (30. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2012ko irailaren 3an, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari eskatzea, Bildu-Nafarroa Bai parlamentu-taldearen eskariarekin bat, fiskalizazio txosten bat egin dezan, "ondoko gaiei buruz: Moderna Planak garatutako jarduerak, kudeaketa-moduaren fiskalizazioa, haren egitura organikoaren funtzionamenduaren egokitasuna eta zehaztutako helburuetara bideratutako baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia".

Nafarroako Kontuen Ganberak, 2012ko azken hiruhilekoan eskari hori sartu zuen urte horretarako lan programan.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Azterketa-lana 2012ko azarotik 2013ko apirilera bitarteko hilabeteetan egin zen.

Eskerrak ematen dizkiegu Moderna Fundazioko langileei, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritza Nagusiko langileei eta Sodena enpresa publikoko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, planari eta Moderna Fundaziolari buruzko laburpen txiki egiten da. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoak eta mugak azaldu ditugu. Laugarrenean, ondorio eta gomendio orokorrak agertzen dira. Bosgarrenean, aurreko ataleko ondorioak zabaldu eta garatzen dira.

II. PLANA ETA MODERNA FUNDAZIOA

II.1. AURREKARIAK

2008ko maiatzaren 21ean, “Nafarroako Garapen Iraunkorreko Akordio Soziala” sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta ordezkari handiena duten eragile ekonomiko eta sozialek: Nafarroako Enpresaburuen Elkarteak, Unión General de Trabajadores eta Nafarroako Langile Komisiok. Egun hartan, besteak beste, honakoak erabaki ziren:

“Elkarrizketa eta ituntze sozialeko prozesu bat zabaltzea, honako gaiei buruz:

1. Enpresa dibertsifikazioko proiektu bat, gure erkidegoan lurralde-oreka lortzera bideratua...”.

Helburu hori betetzeko, hitzarmen bat sinatu zen enpresa publiko batekin eta fundazio batekin; gomendioak egin zitzaizkien enpresa publikoei; eta beste hitzarmen bat egin zen Merkataritza Ganberarekin.

2008ko azaroan, honako hauek lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten: Ekonomia eta Ogasun Departamentua, Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A. (Anain) eta Nafarroako Enpresa Ehundura Dibertsifikatzeko Fundazioa (FNDE).

Fundazio hori 2007an sortu zen, Nafarroako Enpresa Ehundura Dibertsifikatzeko Planaren emaitza gisa. Plan hori, izan ere, batera sustatu zuten Nafarroako Enpresaburuen Elkarteak eta Asociación de la Industria Navarrak (AIN), nazioarteko eta gizarteko testuinguru berriaren aurrean Nafarroako enpresa eta sektore askok etorkizunari buruz antzematen zuten kezka zela eta.

Hauexek dira fundazio horren helburuak:

- Nafarroako enpresa ehunduraren dibertsifikazioa –jarduera sektore berriei begira– sustatzeko ekimen estrategikoak identifikatzea eta abian jartzea sustatuko duten foroak sortu eta finantzea.

- Jarduketa ildo batzuk proposatzea politika publikoak (teknologikoak, hezkuntzakoak) egokitzeko, enpresa ehundura dibertsifikatu bat garatzearen aldeko ingurune bat indartze aldera.

- Gure erkidegoan jada presente dauden enpresa sektoreen lehiakortasuna hobetuko duten ildoak proposatzea, ikuspegi eta aukera berriak identifikatu eta garatzearen aldeko berezko kultura bat sortuz.

- Ekimen estrategikoak abian jar daitezten sustatzeko behar diren ildo eta egiturak sortzea, gako diren eragileen arteko lankidetzak sustatuz eta baliabideetarako irispidea erraztuz.

2008ko hitzarmen horretan, Nafarroako Gobernuaren, fundazioaren eta Anainen arteko lankidetzaren esparrua ezarri zen, Nafarroako Foru Komunitatean garapen ekonomikoko eta enpresagarapeneko eredu berri bat formulatu eta garatzeko. Eredu horrek, izan ere aukera eman behar du, parte-hartzearen bidez, egungo ongizate ekonomiko eta sozialeko mailak areagotzeko.

Hiru entitateek beren jarduerak koordinatuko dituzte, halako moduz non bikoiztasun oro saihestuko den, fundazioak sustaturiko planeko ekimenetan, batetik, eta Gobernuak eta bere tresna-sozietate Anainek Nafarroarentzat sustatutako garapen ekonomikoko eredu berrian, bestetik.

Beste neurri batzuen artean, Gobernuak finantzatzeko dituzten fundazioak 2007tik 2008ra egindako jarduerak batzuk; gehieneko kopurua urtean 200.000 eurokoa izanen da.

Jarduera horiek honakoei buruzkoak izanen dira: prospektiba sektorialeko azterlanak egitea, mahai sektorialak antolatzea –orokorrak nahiz hibridoak– foroak eta eztabaidak antolatzekeo adituak kontratatzea eta abar.

2009an, antzeko beste hitzarmen bat sinatu zen, 2009an eta 2010ean indarra izanen zuena. Haren gehieneko kopurua 400.000 eurokoa izanen zen, bi ekitaldietan erdibana erabiltzeko.

2008an, 2009an eta 2010ean, Ekonomia Departamentuak Anain sozietate publikoari enkargatu zion Moderna Plana –“Moderna” hitza “Modelo de Desarrollo Económico de Navarra” esapiderearen akronimoa da– prestatzeari buruzko zenbait lan egin zitzaizkion. Horretarako, 450.000 euro

esleituko ditu lehenengo urtean; 310.000 euro bigarren urtean, eta 764.074 euro hirugarrenean. 2011n, beste enkargu bat badago, 181.113 eurokoa, urteko lehenengo sei hilabeteetarako. Bigarren seihilekorako, 215.499 euroko enkargua CEIN enpresa publikoaren bitartez egin zen, bera baita aurrekoa bere gain hartzen duena Enpresa Sektore Publikoaren berregituraketaren ondorioz.

2010ean, Ekonomia Departamentuak eta Nafarroako Merkataritza Ganberak hitzarmen bat sinatu zuten. Haren bidez, 75.000 euroko diru-laguntza bat eman zen, 2010ean, 2011n eta 2012an banatzeko, Moderna Inbestitzaileen Foruma sortu eta jardunean jartzeko.

II.2. MODERNA PLANA

Moderna "Nafarroako Garapen Ekonomikorako Eredu" berria da. Plan estrategiko bat da, eza-gutzan oinarritutako ekonomia baterantz aldatzera bultzatzen duena eta osasunaren ekonomia-aren, ekonomia berdearen eta talentuaren ekonomiaren esparruetan espezializatua dagoena. Haren helburua da Nafarroa Europako lehenengo hogeitau eskualdeen artean kokatzea pertsonako BPGd-ari dagokionez.

Fundazioaren webgunearen beraren arabera, planak honako faseak izan ditu: Diagnostikoa; estrategia; ekintza plana, eta kudeaketa eta finantzaketa eredia.

Azkenik, Moderna Fundazioa eratu zen, plana kudeatzeko lankidetzara publiko-pribatua laguntzeko organo gisa. Haren helburu nagusia da jarraitutasuna ematea strategiaren diseinuan eta garapenean jardun duten eragileek egindako lanei. Halaber, berriazko finantzaketa-eredu bat finkatu zen, enpresa bakoitzaren faseetan –sorrera, abian jartzea eta zabaltea– planarekin le-rrokatutako enpresa-proiektuen garapena indartzeko diseinatutako bost erremintekin.

Planak ikuspegia, printzipioak eta adierazleak azaltzen ditu, eta hiru jarduketa-arlo dauzka: ekonomia berdea, osasunaren ekonomia eta talentuaren ekonomia; halaber, laugarren arlo bat ere badauka: zeharkako faktoreak. Guztiek ere beren proiektuak dauzkate.

Enpresentzako babesa honako tresnen bitartez gauzatzen da:

- a) Moderna Zigilua.
- b) Moderna Ekintzaileen Beka.
- c) Moderna aldi bereko inbertsio funtsak.
- d) Moderna Inbestitzaileen Foruma.
- e) EIBren finantzaketa eta Moderna abala.

Proiektu horietako bakoitzarentzat ekintza plan bat finkatu da, zeinak lerro estrategiko batzuk baitaizka, eta lerro horiei "moderna ekipamendu" batzuk bideratzen zaizkie eta haiek baloratzeko adierazleak aurkezten dira.

II.3. MODERNA FUNDAZIOA

2010eko abenduaren 27an, Nafarroako Gobernuak Moderna Fundazioaren estatutuak onetsi zituen. Fundazioa 2011ko martxoaren bederatzian eratu zen. Fundazioaren xedea eta helburua da Nafarroako erregioko garapen ekonomikorako estrategia bultzatzea –Moderna Planean jasota dago estrategia hori– entitate sustatzaileek 2010eko ekainaren 21ean eta Nafarroako Parla-mentuak 2010eko urriaren batean onetsitako estrategia bera eta ekintza plana betearaziz, jarraituz, ebaluatuz, egokituz eta etengabe gaurkotuz. Nafarroako Parlamentuak Moderna Planari buruzko bilkura batean eztabaidatu zuen, lehenengo, planari buruz, eta gero, hari aurkeztutako erabaki proposamenei buruz; izan ere, proposamen horiek bozkatu ondoren, plana onetsi zen, aldeko 36 botorekin, kontrako 11 botorekin eta abstentziorik batere gabe.

Gehitu ziren proposamenen artean honakoa ageri da: “Nafarroako Parlamentuak Moderna Fundazioan eta planaren batzorde iraunkorren parte hartuko du, hartara planaren garapena ezagutu, baloratu eta haren jarraipen egokia egin ahalko baitu.”

Moderna Plana kudeatzeko Moderna Fundazioa sortzea proposatu da. Fundazioa lankidetzarako erakunde publiko-pribatu berria izanen da, eta horren zeregina Moderna Planak eta Nafarroako Enpresa Ehundura Dibertsifikatzeko Fundazioak egindako lanei jarraipena ematea izanen da.

Moderna Fundazioan integratutako entitate sustatzaile gisa definitzen dira Nafarroako Gobernuarekin batera Moderna Plana bultzatu zutenak eta hura idatzi zutenak: Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Sozialista alderdi politikoak; Nafarroako Enpresaburuen Elkartea, Unión General de Trabajadores eta Langile Komizioak sindikatuak; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea.

Halaber, aitortzen da nolako paper garrantzitsua bete duen Nafarroako Enpresa Dibertsifikaziorako Fundazioak, Moderna Planarekin harremana izan duen guztian

Patronatua kide anitzeko organo bat da, 31 kidek osatua:

- 11 kide Nafarroako Gobernua izendatzen ditu (horietako bat Nafarroako Gobernuko lehendakaria izanen da).
- 5 Nafarroako Parlamentuak izendatzen ditu.
- 15 entitate sustatzaileek izendatzen ditu, tokiko, nazioko eta nazioarteko mailan izen aitortua duten profesional eta enpresaburuen artean.

Batzorde Iraunkorra ere badago, zeina 19 kidek osatutako kide anitzeko organoa baita.

“Moderna Fundazioa” Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako 44. legeak ezarritakoaren babesean eratu zen, eta nortasun juridiko berekia dauka bilduma horretako 43.6 legean ezarritakoaren babesean.

Eratze-eskrituraren arabera, zuzkidura-funtsa 30.000 eurokoa da. Eskritura horretan fundazioaren izaera pribatua aipatzen da.

2008tik Nafarroako Aurrekontuetatik Moderna Plana egiteko eta kudeatzeko bideratu diren gastuak hiru milioi eurotik gorakoak izan dira, kontuan hartzen badugu, batez ere, FNDEk Anain eta CEIN enpresa publikoei eta 2012an Moderna Fundazioari ordaindutakoa.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentuak egin duen eskariari erantzuteko, Moderna Planaren jarduerak, kudeaketa modua, egitura organikoaren funtzionamendurako egokitasuna eta ezarritako helburuei begira jarri diren baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia fiskalizatzeari dagokionez, honako helburuak ezarri ditugu:

- a) Nafarroako Gobernuak Moderna Planari egindako ekarpenak egiaztatzea.
- b) Moderna Planaren prestaketa aztertzea.
- c) Moderna Fundazioaren sorrera eta egitura aztertzea.
- d) Fundazioak garaturiko jarduerak baloratzea: zigiluak, funtsak, abalak.
- e) Fundazioaren kontuak aztertzea.
- f) Fundazioaren funtzionamenduari eta jarduerari buruzko balorazio orokor bat egitea.

Txostenarekin batera, Kontuen Ganberak eginiko lanaren ondoriozko gomendioak jaso ditugu.

Lana egiteko, Kontuen Ganberan dagoen dokumentazioa aztertu da, Moderna Planari buruz enkargatutako beste lan batzuen harira lortutakoa, bai eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritza Nagusiak emandako dokumentazioa ere. Moderna Fundazioaren kontuak, kontu-ikuskaritzak eta oroitidazkia erabili ditugu, bai eta haietan ageri diren espedienteak eta dokumentazioa ere. Sodena enpresa publikoak Europako Inbertsio Bankua-Moderna jarduketa-ildoetako buruzko datuak eskuratu dizkigu.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Nafarroako Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Txostenerako muga bat da eraginkortasunari eta efizientziari buruzko balioespena, zeren eta helburuak eta adierazleak epe luzekoak baitira, 2030. urtera artekoak; gure lana, berriz, fundazioaren lehenengo ekitaldiari buruzkoa da soilik. Logikoa den bezala, ezin da fundazioaren jarduerari buruzko balorazio egokirik egin jardunean urtebete baino gutxiago daramanean, zeren eta martxoan eratu baitzen. Hala eta guztiz ere, fundazioak jardunean eman duen lehenengo urtean eginiko jarduerak aztertu ditugu.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan Kontuen Ganberak eginiko lanetik heldutako ondorio eta gomendio nagusiak aurkezten ditugu.

- Nafarroako Gobernuak 2008-2012 urteetan egindako gastua, Moderna Plana prestatu, egin eta kudeatzekoa, hitzarmen eta enkarguen bitartez hasieran eta Moderna Fundazioaren bitartez 2011tik aurrera, 3,2 milioi eurokoa da.

3,2 milioi horien barruan daude, batetik, FNDEk egindako gastuaren ehuneko 50a finantzatzeko erabili den 600.000 euroko kopurua, eta, bestetik, Moderna Fundazioaren sorrerako zuzkidurarako egindako ekarpena, zeina ekarpen pribatuen beste 7.000 euroko kopuruarekin osatu baita.

- 2012. urtean, fundazioaren hasierako aurrekontua 1,1 milioi eurokoa zen; horietatik, milioi bat Nafarroako Gobernutik heldutakoa zen. Aurrekontu-doikuntzako irizpideen ondorioz, aurrekontua 906.000 eurora arte jaitsi zen. Gastua 637.000 eurokoa izan da. Diru hori ia guztia Nafarroako Gobernutik heldu da. Gastuetatik 383.000 euro langileei dagozkie, fundazioan zortzi pertsonak egiten baitute lan.

Fundazioaren xedea, Nafarroako erregioaren garapen ekonomikorako estrategia bultzatzea, sektore publikoaren jardura tipiko bat da. Modernak eragile pribatuak sarrarazi nahi ditu xede horretan, eta, horregatik, honakoa dio kudeaketa-ereduak:

“Moderna Planaren zuzendaritza- eta kudeaketa-organoa diseinatzeko proposamenaren oinarria Planaren arrakastarako funtsezko alderdi bat da: ekimen pribatuaren eta sustapen publikoaren etengabeko lankidetzak. Modernan berebizikoa da sektore pribatuak parte hartzea, behetik eredu ekonomiko berria helarazten baitu proiektu bideragarrietara. Era berean, beharrezkoa da Moderna Planari egonkortasuna emateko Nafarroako Gobernuak eta erakunde-patronoek parte hartzea, baita fundazioko lanen emaitzak babesteko eta martxan jartzeko konpromiso publikoa eta soziala erakustea ere”.

- Kontuan hartuta zein den Modernaren xedea, sorrera-zuzkiduraren gehiengoa entitate publikoetatik datorrela, patronatuko kide gehienak entitate publikoek hautatzen dituztela eta finantzaketa entitate publikoetatik datorrela, bat egiten dugu Parlamentuko zerbitzu juridikoekin, zeinek bi txostenetan adierazi baitute “fundazio publiko baten gisara eratua behar zuela”.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago fundazioak ez duela ez zorpetzerik, ez defizitrik. Horrenbestez, hura sektore publikoarekin bateratzeak ez luke aipatzeko moduko eraginik izanen. Fundazioaren gastuak Nafarroako Gobernuak Kontu-hartzaitzak kontrolatzen ditu zuzenean eta Kontuen Ganberak fiskalizatzen du.

- Sorrerako zuzkidurak ez dio modurik ematen beren lana egiteko funtsak edukitzeko, eta Nafarroako aurrekontuetan esleitzen zaizkion kontusailen menpe dago guztiz. 2013an, aurreikusita dago Nafarroako Gobernuaren ekarpena fundazioaren aurrekontuaren ehuneko 75 izatea.

- Honakoak dira fundazioaren jardueraren muina: proiektuak abian jartzea, eta mahaiak, foroak edo harremanetan hasi nahi duten entitate interesdunentzako topaguneak koordinatzea. Izan ere, fundazioaren eginkizuna da sustatzea, koordinatzea, aztertzea eta proposatzea; azken batean, jardura ekonomikoa dinamizatzea. Hori dela eta, ez du izaera publikoko eskumenik (diru-laguntzak ematea, politikak onestea eta abar); izan ere, halakoak, logikoa den bezala, Nafarroako Gobernuak departamentuei dagozkie.

- Nafarroako eredu ekonomikoa aldatzeko xede orokorrarekin batera, fundazioaren jardura ikusgarriena da Moderna zigilua ematea, zeina baldintza bat baita Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketa eta Moderna abala eskuratzeko.

Europako Bankuak erabaki zuen 250 milioiko kreditu bat ematea –100 milioi euro gauzatu dira hartatik– enpresa txikiak finantzatzeko.

Kreditu horren kudeaketaz Sodena arduratzen da. Izan ere, Sodenak zeharka finantzatzen ditu enpresak, kredituak ematen baitizkie Moderna Planaren barruan proiektuak aurkeztzen dituzten enpresen finantzaketa errazten duten finantza-entitateei. Halaber, emandako kredituaren zati baten abala eman dezake. Hau da, proiektuaren finantzaketa finantza-entitateek egiten dute, beren irizpideen arabera, eta horrek berarekin dakar Moderna zigiluen finantzaketa mugatua izatea.

- 2012an, 228 zigilu eman ziren eta 69 eragiketa finantzatu ziren, Europako Inbertsio Bankuaren 16,4 milioiko finantzaketarekin eta 3,5 milioiko abalekin. Eragiketa horietan aurreikusitako inbertsioa 37,6 milioikoa zen.

Behin zigilua emanda, fundazioak ez du sistematizatu proiektuen betetzearen gainean egin behar zuen kontrola.

Funtzionamenduko lehenengo urtea bada ere, finantzaketaren kopuru horiek txikiak dira; halere behar adina datu ez dugu aukera eman diezaguketenik hura gertatzen den zenbatesteko, zeren eta proiektuak ez baitira abian jartzen, edo atzeratzen baitira, edo finantza-entitateek ez dituzte haietarako behar diren funtsak ematen.

- 30 urterako aurreikusita dagoen plan batean, lehenengo urtean eginiko jarduketak ez digu biderik ematen eraginkortasun orokorrari buruzko ondorioak ateratzeko; are gutxiago, egungo krisi ekonomikoaren eraginak kontuan hartuta.

Epe luzeko plan bat denez, Moderna Planaren jarduketak ez daude aurreikusita epe laburrean eragina izateko egungo krisi ekonomikoaren egoera larrian.

- Laburbilduz, positibotzat jotzen dugu Nafarroaren epe ertain eta luzeko garapen ekonomiko-rako plan bat egitea, sektore pribatuak hartan parte hartzeko zabalik egonen dena. Planaren helburuak lortzeko, Moderna Fundazioak ekimenak eta topaguneak dinamizatu, sustatu eta koordinatzen ditu, zeren eta bere garapen-ereduak hainbat egileren arteko lankidetzaz bilatzen baitu.

Horrenbestez, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Moderna zigilua lortzen duten proiektuen jarraipen handiagoa, honakoak ezagutze aldera: haien ezarpena, eragin duten inbertsioa, sortu dituzten lanpostuak, lortu duten finantzaketa eta, kasua bada, egindakoaren eta aurreikusitakoaren arteko desbideratzeen arrazoiak.*

- *Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketa zigilua lortzearen pean ez ezik –hori ezinbesteko baldintza bat baita–, proiektuari edo enpresaren kaudimenari finantza-entitateek aitortzen dieten bideragarritasunaren pean ere badago; hori dela eta, finantza-merkatuan eragiteko beste aukera batzuk aztertu behar dira.*

- *Aztertzea ea egungo egoeran Moderna Plana aldatu beharko litzatekeen, funtsean langabezi tasa handian islatzen den krisi ekonomikoko egungo egoera aritzen lagunduko duten bestelako neurri batzuei arreta handiagoa eskaintzeko.*

- *Aztertzea ea ez ondarrerik ez behar adinako sorrera-zuzkidurarik ez duen fundazio bat –horrenbestez, urtero aurrekontuetan kasuko kontusaila egotearen menpe egonen dena– sortzea tresnarik egokiena den epe luzeko plan bat kudeatzeko. Bestalde, logikoa dirudi epe luzeko plan baten ezarpenak finantzaketetarako berme gutxieneko bat izateak.*

- *Fundazioaren oroitidazkian jasotzea urtero jarduketa-planean onetsitako helburu eta adierazleen jarraipena eta balioespena.*

- *Azpimarratzea beharrezkoa dela entitate pribatuak sar daitezela fundazioaren jarduketan urteroko finantzaketan.*

V. IRUZKINAK

Atal honetan, zenbait iruzkin egiten ditugu, egindako lana garatzen eta zabaltzen dutenak.

V.1. NAFARROAKO GOBERNUAK MODERNA PLANARI EGINDAKO EKARPENA

Txosten honen sarreran jada adierazi den bezala, Moderna Planaren garapenean, Nafarroako Gobernuaz gainera, honakoek esku hartu dute, nagusiki: Nafarroako Enpresa Ehundura Dibertsifikatzeko Fundazioa; Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A. (ANAIN), zeina gero CEIN, S.A.n sartu baitzen, eta Moderna Fundazioa. Gainera, gizarte zibilaren ordezkarien partaidetza ere izan da.

Honela laburbil ditzakegu gastuak:

Gastuak: zein enpresari ordaintzen zaizkion	Kopurua
FNDE (2008-2010 urteetako hitzarmena)	600.000
Anain-CEIN, 5 enkargu (2008tik 2011ra)	1.863.929
Merkataritza Ganbera (2010-2011 urteetako hitzarmena)	40.000
GAP's comunicación (2010-2011)	37.485
Moderna Fundazioaren sorrera-zuzkidura	23.000
Moderna Fundazioa (2012)	634.978
Guztira	3.199.392

FNDEren ordainketak 2007tik 2010era bitarteko jarduketetarako sinatutako hitzarmenei dagozkie –txosten honen sarreran jada aipatu ditugu–, eta FNDEk egindako gastuaren ehuneko 50 egiten dute, gutxi gorabehera.

Anain-CEIN enpresa publikoei plana egiteagatik ordaintzen zaie, eta honakoak dira ordainketa nagusiak: planaren lanketan laguntza eman aholkularitza-enpresari egindakoak; langile-gastuak, eta bi enpresen gastu orokorren egozketa.

Merkataritza Ganberari 40.000 euro ordaintzen zaizkio Moderna Inbestitzaileen Forumaren sorreran eta funtzionamenduan parte hartzeagatik.

GAP's comunicación delakoaren zenbatekoa Moderna Planarekin lotutako gastuei, Nafarroako Gobernuak zuzenean ordaindutakoei, dagozkie.

Moderna Fundaziorako ekarpenak Nafarroako Gobernuak jarritako sorrera-zuzkiduraren zatiari eta 2012ko aurrekontuetan aitortutako gastuari dagozkie, sinatutako hitzarmenari jarraituz, eta Fundazioak aurkeztu eta Nafarroako Gobernuak onartutako justifikazioei.

V.2. PLANAREN PRESTAKETA ETA EDUKIA

Moderna Nafarroako garapen ekonomikorako eredu berria da. Plan estrategiko bat da, ezagutzan oinarritutako ekonomia baterantz aldatzera bultzatzen duena eta osasunaren ekonomiaren, ekonomia berdearen eta talentuaren ekonomiaren esparruetan espezializatua dagoena. Haren helburua da Nafarroa Europako lehenengo hogeik eskualdeen artean kokatzea pertsonako BPGd-ari dagokionez.

Fundazioaren webgunearen beraren arabera, planak honako faseak izan ditu:

V.2.1. Diagnostikoa

Planaren helburua Nafarroako ekonomia makroekonomia magnitudeetan aztertzea izan zen, baita sektore ekonomiko nagusien jardutea aztertzea ere; halaber, eskualdeko lehiakortasun faktoreen ekarpena balioestea ere izan du helburu (giza kapitala, azpiegiturak, berrikuntza, ekintzailletza eta abar). Hortik abiatuta, identifikatu ziren zein erronka nagusi, zein sendotasun eta zein aukera zeuden lehiakortasun globalaren esparruan aurrera egiteko.

V.2.2. Estrategia

Planaren diagnostikotik abiatuta, bigarren aldi honek epe luzerako ikuspegia eta hurrengo hamarkadetan planak Nafarroako ekonomiarentzat izango zituen helburuak ezarri zituen: oporatasun handiagoa, giza garapen handiagoa eta ingurumenaren jasangarritasun handiagoa.

Hori lortzeko, ekonomia berdearen, osasunaren ekonomiaren eta talentuaren ekonomiaren sektore ekonomikoei lehentasuna ematearen alde egin zen, Nafarroak esparru horietan baitu etorkizunerako aukera gehien. Gainera, zenbait helburu ezarri ziren eskualdea lehiakorrago izateko berrikuntzaren, ekintzailatzaren, administrazioaren, nazioartekotzearen eta azpiegituren esparruetan, eta hezkuntzaren eta talentuaren erronka epe luzera garatu beharreko giltzarri gisa definitu zen.

Eredu estrategiko berria definitzeko, Adituen Batzordea sortu zen. 33 pertsonak osatu zuten, denak ere ekonomiaren ikuspegi estrategikoa eta globala zutenak eta Nafarroarekin zerikusia zutenak. Ondoren, eredu estrategiko hori MODERNaren Zuzendaritza Batzordeak onetsi zuen.

V.2.3. Ekintza plana

Hirugarren aldi honetan, operazio plan bat diseinatu zen, epe ertainerako eta luzerako helburu zehatzak eta estrategia-sektore zein lehiakortasun faktore bakoitzean erdiesteko ekintzak jasotzen zituena, eta gainera, ebaluazio sistema jarrai bat eta helburuen jarraipen sistema bat diseinatu ziren. Plana osatzeko hamalau lan-mahai espezifikoko antolatuta ziren, bana cluster edo zeharkako faktore bakoitzeko. Planak biltzen dituen esparruetan esperientzia profesionala eta erantzukizuna duten enpresa nagusietako, ezagutza zentroetako eta erakunde publikoetako 258 eragilek parte hartu zuten.

V.2.4. Kudeaketa eta finantzaketa eredia

Azkenik, Moderna Fundazioa eratu zen, plana kudeatzeko lankidetzara publiko-privatua laguntzeko organo gisa. Haren helburu nagusia da jarraitutasuna ematea strategiaren diseinuan eta garapenean jardun duten eragileek egindako lanei. Halaber, berriazko finantzaketa-eredu bat finkatu zen, enpresa bakoitzaren faseetan –sorrera, abian jartzea eta zabaltzea– planarekin le-rrokatutako enpresa-proiektuen garapena indartzeko diseinatutako bost erremintarekin.

Planak honako ikuspegia eta printzipioak dauzka.

- Ikuspegia.

NAFARROA MODERNO BAT ikusten da, sormena eta ekimena duten pertsonez osatua; aurrera doan gizarte dinamiko eta bateratu baten parte izanik, haien talentuarekin ekonomia berri-tzaile, arrunt emankor bat bultzatzen dutenak; hots, ekonomia bat munduari irekia, solidarioa, ingurua errespetatzen duena, bizi kalitatera bideratua eta konfiantzan oinarritua.

- Modernaren 10 printzipioak.

- a) Pertsonek alde egitea.
- b) Gizarte malgua eta irekia sortzea, oztopoak kentzea.
- c) Konektatuak egotea, beti kanpora begiratzea.
- d) Baliabideak oso ongi egiten dugun gauzetan jartzea eta haiek saltzen jakitea.
- e) Onenekin elkarlanean aritzea.
- f) Ekintzaileak eta saiatuak izatea.
- g) Diseinuaren eta sormenaren alde egitea.
- h) Talentua erakartzea.
- i) Berrikuntza eta ezagutza landuko dituen laborategi moduko eskualdea izatea.
- j) Nafarroaren hobekuntza sozioekonomikoa bilatzea epe luzera.

Adierazle nagusiak hurrengo taulan ageri dira, 2013ko urtarrileko egoerarekin batera:

ESPARRUA	ADIERAZLEA	ABIA-PUNTUA	2015eko HELBURUA	2020eko HELBURUA	2030eko HELBURUA
HEZKUNTZA	PISA puntuak	502	510	525	550
	Ingelesean B2 maila duten 18 urtekoen %	7%	30%	50%	90%
	Goi mailako tituludunen eta LHII dutenen %	36%	40%	45%	55%
BERRIKUNTZA	Inbertsioaren % I+G+Bn	1,92%	2,20%	3,00%	4,00%
	Patente kop. guztira	172	285	410	844
	Berrikuntza indizea eta postua Europan	0,48 eta 76	0,51 eta 60	0,60 eta 50	0,70 eta 35
NAZIO-ARTEKOTZEA	Esportazioak (M€)	5.450	6.500	8.000	10.000
	Enpresa esportatzaileen kop.	711	1.000	1.300	2.000
	Enpresa multinazionalen kop.	133	150	175	200
ENPLEGUA ETA ENPRESA	Lana dutenen kop.	284.000	298.000	331.000	365.000
	ekoizpena langileko (€)	61.000	68.000	73.000	85.000
	50 langile baino gehiagoko enpresen %	1,30%	1,60%	2,00%	2,50%
	Enpresa berrien kop. urtean	943	1.100	1.250	1.600
OPAROTASUNA ETA KOHESIO SOZIALA	Per capita BPGd postua	32	30	25	20
	Per capita BPGd EAPn (€)	30.614	34.000	37.000	43.000
	Aberastasunaren banaketa	28	27	26	23
	Bizi-kalitatea (GGA)	0,9720	0,9725	0,9790	0,9870
	Ingurumenaren jasangarritasuna	2.132	1.900	1.650	1.450

Planak hiru jarduketara-erlo dauzka, honako azpi-arloak dituztenak:

- Ekonomia berdea
 - a) Energia berriztagarriak.
 - b) Nekazaritzako elikagaien industriak.
 - c) Eraikuntza jasangarria.
 - d) Ingurumena eta hondakinak.
 - e) Ibilgailu jasangarria.
 - f) Turismo jasangarria.
- Osasunaren ekonomia
 - a) Biomedikuntza.
 - b) Medikuntza tresnak.
 - c) Osasun zerbitzuak.

- Talentuaren ekonomia
 - a) Mekatronika.
 - b) Hezkuntza eta ezagutza sortzea.
 - c) Enpresentzako zerbitzuak.

Eta, gainera, laugarren arlo bat dauka, zeharkakoa deitzen dutena.

- Zeharkako faktoreak
 - a) Ekintzailletza.
 - b) Nazioarteratzea.
 - c) I+G+b
 - d) Azpiegiturak.
 - e) Herri administrazioa.
 - f) Hezkuntza, talentua eta giza kapitala.

Jarduketa horietako bakoitzarentzat, estrategia, proiektu eta ekintza ildo batzuk garatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Helburu orokorrak.	Arloak		Lerro estra- tegikoak	Proiektuak	Epe labu- rreko ekintzak	Epe ertain eta luzeko ekintzak
	Osasunaren ekonomia	Osasun zerbitzuak	3	8	23	19
		Biomedikuntza	3	10	16	13
		Medikuntza tresnak	0	0	0	0
	Ekonomia berdea	Energia berriztagarriak	4	8	21	18
		Nekazaritza elikagaien indus- triak	4	14	17	15
		Eraikuntza iraunkorra	3	6	14	16
Ingurumena eta hondakinak		0	0	0	0	
Ibilgailu jasangarria		0	0	0	0	
Turismo jasangarria		3	12	17	17	
Bizi kalitatea hobetzea.	Talentuaren ekonomia	Mekatronika	0	0	0	0
		Hezkuntza eta ezagutzaren sorkuntza	0	0	0	0
		Enpresa-zerbitzuak	0	0	0	0
Oparotasun handiagoa	Zeharkako faktoreak	Hezkuntza, talentua eta giza kapitala	4	17	38	0
		Administrazio Publikoa	3	7	23	23
		I+G+b	4	11	27	29
		Ekintzailletza	2	10	19	0
		Nazioarteratzea	4	10	28	25
		Azpiegiturak				
		Elkarlanerako ingurunea				
Guztira	4	19	37	113	243	175

Enpresentzako babesa honako tresnen bitartez gauzatzen da:

- Moderna zigilua.
Moderna Planarekin lerrokatutako proiektuak dituzten erakunde eta enpresei ematen zaien kalifikazioa.
- Moderna Ekintzaileen Beka.
Ekintzaileei babesa emateko programa, beren ideia/enpresa gara dezaten.
- Baterako inbertsiorako Moderna funtsak
Inbestitzaile pribatuentzako eta arrisku kapitaleko funtsetarako kanala da, Moderna Planeko sektore estrategikoak inbertsioak egiteko.
- EBI-MODERNA finantzaketa lerroa.
Finantzaketa lerro hauek, abantaila-baldintzetan ematen direnak, 250 langile baino gutxiago dituzten enpresa txiki eta ertain independenteei bideratzen zaizkie.
- Moderna Inbestitzaileen Foruma.
Ekintzaileen eta inbestitzaileen arteko harreman-gunea, proiektuak garatzeko.
- Moderna abala.
Moderna Planarekin lerrokatutako enpresen inbertsiotarako eta proiektuetarako berme-tresna.

Proiektu horietako bakoitzarentzat ekintza plan bat finkatu da, zeinak lerro estrategiko batzuk baitaizka, eta lerro horiei "moderna ekipamendu" batzuk bideratzen zaizkie eta haiek baloratzeko adierazleak aurkezten dira.

V.3. MODERNA FUNDAZIOA

2010eko abenduaren 27an, Moderna Fundazioaren estatutuak onetsi ziren. Haien xedea eta helburua da Nafarroako erregioko garapen ekonomikorako estrategia bultzatzea –Moderna Planean jasota dago estrategia hori– entitate sustatzaileek 2010eko ekainaren 21ean eta Nafarroako Parlamentuak 2010eko urriaren batean onetsitako estrategia bera eta ekintza plana betearaziz, jarraituz, ebaluatuz, egokituz eta etengabe gaurkotuz.

V.3.1. Helburuak

Helburu eta xede horien artean, honakoak aipa daitezke:

- Nafarroaren oparotasuna, bizi kalitatea, eta ingurumen-iraunkortasuna handitzea, jarduera ekonomikoa sustatuz ekonomia berdearen, osasunaren ekonomiaren eta talentuaren ekonomia-aren sektore estrategikoetan.

- Pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea, hazkunde iraunkor integratzailea sustatuz, EU-2020 Estrategiarekin bat, aberastasunaren banaketa eta Nafarroako gizarte kohesioa hobetzeko helburuarekin.

- Nafarroako enpresen sorkuntzarako, garapenerako eta hazkunderako aldeko ingurune eraginkorra sortzea, lanpostu kopuruaren hazkunde iraunkorraren bitartez eta lehiakortasuna nabarmen hobetuz.

- Talentuaren hezkuntzaren aldeko aukera bultzatzea eta zeharkako ekimenak koordinatzea; esate baterako, ekintzailatza, berrikuntzaren sustapena eta nazioarteratzea, azpiegitura produktiboak bultzatzea eta administrazio publikoak hobetzea.

- Honako hauen arteko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea, sektore publikoan eta pribatuan etengabe hobera egiteko esparru komuna sortuz: Administrazio Publikoa, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta ezagutzaren bestelako zentroak eta enpresak.

- Ezagutzaren ekonomia sustatzea, eta produktibotasuna, lehiakortasuna, espezializazioa, berrikuntza eta giza kapitalaren proaktibotasuna etengabe hobetzea.

- Nafarroaren garapen ekonomiko eta soziala garatzeari buruzko gogoeta estrategikoko prozesu jarraitu bat bultzatzea.

Hori lortzeko, fundazioak gisa honetako jarduketak eramanen ditu aurrera:

- Moderna Plana sustatzea eta, kasua bada, hura gaurkotu eta egokitzea faktore ekonomiko eta sozialen bilakaeraren arabera.

- Moderna Planaren etengabeko jarraipen eta ebaluazioa.

- Honako zeharkako faktoreen garapena sustatzea:

a) Hezkuntza-eredu erregionala garatzea, talentua sortuz eta garatuz eta hari arreta eskainiz.

b) Administrazio publikoen eraldaketa bultzatzea, lehiakortasuneko faktore bat eta produktibotasunaren eta efizientziaren adibidea izan daitezen.

c) Ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea, I+G+B jarduerak merkatu-aukera bihurtuz.

d) Ekintzaileen eta enpresa berrien kopurua kuantitatiboki eta kualitatiboki handitzeko, bai eta lehendik daudenak handiagotzeko, programak eta jarduketak, inplikaturako eragileen ekintzen koordinazioa sustatuz.

e) Nazioarteratze ekimenak, “clusterren” nazioarteratze maila areagotzeko eta inbertsio estrategiko berriak erakartzeko, inplikaturako eragileen ekintzak koordinatuz.

f) Energia-zuzkiduraren segurtasuna eta kalitatea bilatzea, eta iraunkortasuna aintzat hartuko duen energia-azpiegituren garapena, energia-iturri berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa sustatuz.

g) Ahalmen ekonomikoa areagotuko duten azpiegitura produktiboak garatzea.

- Moderna Planak aipatzen dituen enpresen “cluster” estrategikoak sustatu eta bultzatzea, bai eta Nafarroako ekonomiarako estrategikotzat jotzen diren eta hazten doazen sektoreetakoak ere.

- Enpresa-proiektu berrien finantzaketarako tresnen diseinua eta garapena laguntzea, finantza-entitateekin eta kapital-arriskuko sozietateekin batera lan eginez; esate baterako, ekintzaileentzako bekak ematea, inbertsio funtsak eratzea, finantzaketa lerroak eta abalak sortzea, inbestitzaileentzako topaketa-foroak sortzea, bai eta bestelakoak ere, betiere eragile publiko eta pribatuaren parte-hartzea sustatuz.

- Moderna Plana eta haren betetzea sustatu, zabaldu eta komunikatzeko ekintzak, bai eta jarduera nagusien osagarri edo gehigarri izan daitezkeen gainerakoak ere.

- Eta, oro har, zuzendaritza organoek enkargatzen dizkion gainerakoak, fundazioaren helburu eta xedeen barruan.

V.3.2. Antolamendua

Moderna Fundazioan integratutako entitate sustatzaile gisa definitzen dira Nafarroako Gobernuarekin batera Moderna Plana bultzatu zutenak eta hura idatzi zutenak: Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Sozialista alderdi politikoak; Nafarroako Enpresaburuen Elkarteak, Unión General de Trabajadores eta Langile Komisioak sindikatuak; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea.

Halaber, aitortzen da nolako paper garrantzitsua bete duen Nafarroako Enpresa Dibertsifikaziorako Fundazioak, Moderna Planarekin harremana izan duen guztian.

Patronatua kide anitzeko organo bat izanen da, 31 kidek osatua:

- Toki bat unean-unean Nafarroako Gobernuak lehendakari kargua betetzen duen pertsonak beteko du.

- Hiru kide Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu bere kontseilarien artean.

- Zazpi kide Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu, entitate sustatzaileek proposatuta.

- Bost kide Nafarroako Parlamentuak izendatuko ditu.

- Hamabost kide entitate sustatzaileek hautatuko dituzte, Nafarroako Enpresa Dibertsifikaziorako Fundazioak eta entitate sustatzaileek proposatuta, tokiko, nazioko eta nazioarteko mailan izen aitortua duten profesional eta enpresaburuen artean.

Patronatuko kideek ezin izanen dute interes ekonomikorik eduki fundazioaren jardueraren emaitzetan, ez berez, ez tarteko pertsonaren baten bitartez, eta bozketetan abstenitu beharko dira haiengan, beren zuzeneko senideengan eta laugarren mailara bitarteko senideengan eragina dutenean edo zuzenean edo zeharka sozietate-loturarik (kapitalean parte hartzeagatik edo organoren bateko kidea izateagatik) nahiz zuzendaritza-, lanbide- nahiz lan-mailako daukaten sozietateengan eragina dutenean.

Patronatukidearen kargua bateraezina izanen da fundazioari edozein zerbitzu ordaindu ematearekin. Batareazintasun horrek eragina du, halaber, ezkontide eta seme-alabengan, bai eta fundazioko sortzaileengan ere.

Patronatuko kideek doan jardunen dute beren karguan. Hala eta guztiz ere, beren eginkizunetan sortzen diren gastuak ordaindu ahalko zaizkie, behar bezala frogatuz gero.

Batzorde iraunkor bat ere eratzen da, 19 kidek osatutako kide anitzeko organoa:

- Bi kide Nafarroako Gobernuak zuzenean izendatuak. Horietako batek batzorde iraunkorreko lehendakari kargua beteko du.

- Zazpi kide entitate sustatzaileetatik bakoitzak izendatuko ditu.

- Bi kide Nafarroako Parlamentuak izendatuko ditu zuzenean.
- Zazpi kide enpresaburuak eta profesionalak ordezkatzeko izendatuko dira.
- Moderna Fundazioko lehendakariordea batzorde iraunkorreko berezko kidea eta lehendakariordea izanen da.

Batzorde Iraunkorrak patronatuko osoko bilkurak eskuordetuta jardunen du, eta helburu izanen du Moderna Plana etengabe bultzatzea, bai eta Moderna Fundazioaren estatutuetan aurreikusitako guztia ere, patronatuaren osoko bilkuraren eskumen eskusiboa ez dena. Halaber, Batzorde Iraunkorrari egokituko zaio fundazioko zuzendari nagusia izendatzea eta, kasua bada, kargutik kentzea.

Kide anitzeko organo horien ondoan, zuzendari nagusiak jardunen du. Izen handiko profesional aditua izanen da, eta honako eginkizunak izanen ditu: Moderna Plana kudeatzea, koordinazio lantaldea zuzentzea eta patronatuari ekintza plana, aurrekontua, oroitidazkia eta kontu orokorra proposatzea. 2011ko abenduan jabetu zen karguaz zuzendari nagusia.

Fundazioko plantillak, zuzendariak gainera, honakoak biltzen ditu: zuzendariorde bat, proiektuetako lau zuzendari, komunikazioko arduradun bat eta zuzendaritzako idazkaria, guztiak ere enpresa publikoetatik etorriak.

V.3.3. Araubide juridikoa

Fundazioak Arrieta kaleko 8. zenbakiko 7. solairuan du egoitza, Gobernuaren jabetzako lokal batzuetan. Aurrekontuko zuzendari nagusiaren 198/2011 Ebazpenaren bitartez, lokalaren erabilerara doan laga zitzaion Moderna Fundazioari, 2030eko abenduaren 31ra arte, bai eta lokalean zeuden altzariak ere.

Fundazioak berezko nortasun juridikoa dauka eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren babespean dago, lurraldeko plangintza ekonomikoaren arloan eskuduna den departamentuaren bidez, kontuan hartuta Fundazioei buruzko 50/2002 Legean jasotako ahalmenak eta hura garatzeko erregelamendua.

Fundazioaren sorrerako eskrituraren arabera, zuzkidura-funtsa 30.000 eurokoa da, nahiz eta ez den titulartasuna adierazten. Nafarroako Fundazioen Erregistroan Moderna Fundazioa jasotzeko ebazpenean, zehazten da Gobernuaren ekarpena 23.000 eurokoa dela eta gainerako 7.000 euroak entitate sortzaileetatik heldu direla. Berariaz esaten da fundazioak izaera pribatua duela eta gizarte interesa duela.

Gobernuaren Kontu-hartzailetzak fundazioa eratzeko espedienteari buruz egindako txostenean, non hasierako ekarpena onesten baita, jasotzen da zuzkidura-funtsak legezko gutxienekoa betetzen duela, eta, horretaz gainera, argi dagoela zenbateko horrek ez diola eragiteko gaitasunik bermatzen koordinazio-lantalde baten buruan zuzendari nagusi bat edukitzea aurreikusten duen entitate bati; izan ere, sorrerako zuzkiduraren guztizkoa zabal gaitutuko duen kostua aurreikusten da.

Hori dela eta, adierazten du espedienteak bideragarritasun azterlan bat eduki behar duela, non funtzionamendu-kostuak eta egin beharreko jarduketan finantzaketa-aurreikuspenak jasoko diren; izan ere, horrek aukera emanen luke egiaztatzeko diru-laguntza emateko orduan aitortutako onura publikoaren xedea betetzen den ala ez. Iturri horiek aurrekontu-izaerakoak baldin bada, kasuko egiaztatze-txostena beharko da, aurrekontu-gastu hori epe ertaineko perspektiba finantzarioei egokitzeari buruzkoa.

“Moderna Fundazioa” Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako 44. legeak ezarritakoaren babesean eratu zen, eta nortasun juridiko berekia dauka bilduma horretako 43.6 legean ezarritakoaren babesean.

Fundazioak pertsona juridiko-pribatuak dira, “sortzailearen borondateaz, eratze-ekintzan eta estatutuetan adieraziaz” arautzen direnak.

Estatuko legeko 8.4 artikulua berariaz baimentzen die pertsona juridiko publikoei fundazio publikoak eratzea, salbu eta fundazioei buruzko kasuko araudian “kontrakoa ezartzen denean”. Bestalde, Foru Berriko 42. legeak berariaz aitortzen dio Nafarroako Foru Diputazioari pertsona juridikoak, fundazio gisa, eratzeko ahalmena.

Estatuko legedirako, estatuko sektore publikoko fundazioak dira honako inguruabarretako bat edo batzuk betetzen dituztenak:

- Haiek eratzeko ekarpenaren gehiengoa publikoa izatea.
- Sorrerako ondarearen ehuneko 50 baino gehiago, modu iraunkorrean, estatuko ente publikoek emandako ondasunez edo eskubideez osatuta egotea.

Nafarroako araudiaren kasuan, ondorioztatzen da (Europako Zuzenbide Komunitarioarekin bat) foru sektore publikokoak direla edo fundazio publikoak direla, beren sorrerako ondarearen gehiengoa sortzailearen ekarpen publikoen bidez eskuratua dutenak (LFACFren 125.2 artikulua) edo gobernu organoetako ordezkartzaren gehiengoa Administrazio Publikoarena dutenak (LFHPren 2.g) artikulua eta LFCPren 2.e) artikulua).

Horregatik, fundazio pribatu gisa eratuta dagoen arren, bat gatoz Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoekin, bi txostenetan adierazi baitute “fundazio publiko gisa eratu” behar zatekeela Azpimarratu behar da, hala ere, fundazioak ez duela ez zorrik ez defizitrik; beraz, hura sektore publikoan finkatzeak ez luke eragin nabarmenik izanen, haren gastuak Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzaileak kontrolatzen ditu zeharka, eta Kontuen Ganberaren fiskalizaziopean dago

Bestalde, ezin da alde batera utzi fundazioaren finantzaketaren zatirik handiena Nafarroako Aurrekontuetatik datorrela eta sorrerako zuzkidurak ez diola aukerarik ematen bere jarduerak finantzatzeko baliabideak lortzeko. 2013an aurreikusten da Nafarroako Gobernuaren ekarpena fundazioaren aurrekontuaren ehuneko 75 izatea eta, horrenbestez, ehuneko 25 iturri pribatuetatik lortzea.

Horri dagokionez, Ganbera honen beste txosten batean¹, honakoa adierazi genuen: “Fundazio bat eratzten da fundazio-ondare batekin, zeinak, bestelako diru-sarrera batzuekin batera, errenta batzuk sortzen baititu, fundazioa eratu zeneko helburuetara bideratzen direnak.

Hala ere, kasu honetan, fundazioak ez du funtzionatzen bere hornikuntzaren etekinen indarrez, baizik eta erakartzen dituen diru-laguntzen eta baliabideen ondorioz.

Ikuspuntu finantzariotik, fundazioak bere jarduerari eutsi ahalko dio bere jarduera egiteko behar adinako urteko diru-sarrerak “bermatuta” dituen bitartean”.

Antzeko kasu baten aurrean gaude, zeren eta fundazioak ez baitu gaitasunik bere zuzkidurarekin baliabide berekiak sortzeko, eta, kasu honetan, aurrekontuetako zuzkiduren menpe dago guztiz.

¹ Nafarroako Orkestra Sinfonikoari buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko abendua. (Ikus. Comptos Ganberako webgunea.

V.4. MODERNA FUNDAZIOAK GARATUTAKO JARDUERAK

Fundazioak garatutako jarduerak bi ataletan bana daitezke: alde batetik, hiru jarduketa arloetatik (osasunaren ekonomia, ekonomia berdea eta talentuaren ekonomia) eta zeharkako faktoreetatik (besteak beste, foroak, mahaiak eta "clusterrak" antolatzea, irizpideak, arauak eta abarrek) heldu diren proiektuak abian jartzearekin lotutako guztiak; eta bestetik, enpresei zuzeneko babesa ematekoak (zigiluak eta finantzaketarako babesa).

V.4.1. Enpresa-laguntza

Sei dira enpresei laguntzeko aurreikusitako tresnak:

V.4.1.1. Moderna inbertitzaileen foruma

Moderna Inbertitzaileen Foruma inbertitzaile pribatuen eta ekintzaileen arteko topagunea da. Forumaren azken helburua da "zentzuzko finantzaketa" lortzea MODERNA sektoreekin bat datozen Nafarroako enpresa berritzaileentzat.

Hura betetzeko urtebeteko laguntza-kontratu bat egin zen. Estrategia y Gestión de Negocios enpresak hartu zuen kontratu hori. Kontratuak kontzeptu finkoko 24.000 euro eta kontzeptu aldatzeko 1.750 euro aurreikusten zituen bitartekaritza-akordio bakoitzeko.

2012an bi forum antolatu ziren. Lehengoa Nafarroako Ganberarekin batera antolatu zuen, eta bost proiektu hartu zuten parte; bigarreneko, berriz, lau proiektu aurkeztu ziren.

V.4.1.2. Baterako inbertsioak egiteko Moderna funtsak

Bi hitzarmen egin dira, Up-Capitalekin eta Sodenarekin. Enpresa horiek konpromisoa hartzen dute, besteak beste, Moderna zigilua izan eta kapitala behar duten edo bazkideak bilatzen dituzten proiektuak aztertzeko eta, kasua bada, haietan inbertitzeko.

V.4.1.3. Moderna ekintzailearen beka

Beka hau, 2010ean eta 2011n CEIN enpresa publikoak kudeatu du. 2012an, 2013-2015 urteetarako ekintzailatza plana egin da, zeinak 20 milioi euroko aurrekontu-beharrak aurreikusten ditu. Bestalde, zenbait bilera egin dira ekintzailatza master bat abian jartzeko.

2012an ez zen bekarako deialdirik egin, ekintzailatza planaren esparruan hura zehazteko zain egon baita, zeren eta bere jarduketetako baten gisara jasotzen baitu.

V.4.1.4. Moderna Zigilua

2012ko jarduketa planaren barruan, fundazioren zerbitzu-zorroa ezartzen da, non Moderna Zigilua, lehentasunezko proiektuetarako dena, sektore estrategikoei eta enpresei begira ezarritako zerbitzuetako bat baita. Bertan ezartzen da bi motako zigiluak emanen direla: "IEB-Moderna proiektuen" zigilua, zeinak bidea ematen baitu finantzaketa IEB-Moderna ildoan bitartez jasotzeko; eta "Moderna Proiektuaren" zigilua, zeinak Moderna Plana garatzeko proiektu estrategikoak jasotzen baititu.

2012an, enpresa-proiektuetarako Moderna zigilu hori jarri da abian, bai enpresa berriei begira, bai Nafarroan dauden enpresei begira. Horren aurrekari batzuk badaude; esate baterako, 14/2009 Foru Legeko "foru intereseko inbertsioak" edo inbertsiorako laguntzak arautzen dituzten foru legeetako "interes bereziko proiektuak".

Agiri berean, zigilu honek berarekin ekarri beharreko abantailak aipatzen dira:

- "Tramitazioarako autobide" batez baliatu ahal izatea, epea eta izapideak gutxitze aldera, Jarraiera Ekonomikoak Tramitatze Bulegoarekin koordinatuta.

- Laguntzen gehieneko intentsitatea. Europako mugekin, zonifikazioarekin eta behar diren beste irizpide batzuekin bat.

- Finantzaketa, abalak eta kapitala jasotzeko sarbidea. Moderna kapital-funtsen inbertsio edo finantzaketa automatiko bat egon liteke (gutxiengo txiki batena baina nolabaiteko bermea ematen lukeena) zigilua lortzeagatik, edo gutxienez ere proiektua aztertzeko eta inbertsio-egileei aurkezteko abantaila batzuk.

- Abantaila fiskalak. Lantalde bat sortuko da, azterketa orokor bat egiteko, egun dauden laguntza-ildoekin batera, Nafarroan Moderna proiektuak ezar daitezela eta haiek erakar daitezela errazteko.

Zigiluak emateko irizpideak 2012-02-15ean onetsi zituen Batzorde Iraunkorrak. Bi motatako zigiluak ezartzen dira:

- Moderna Proiektua, zeinak nagusiki finantzaketarako aukera ematen baitu EIB-Moderna il-doen bitartez. Helburua da likidezia ematea bai enpresa txikiei bai enpresa ertainei, lehentasunezko sektoreen barruan.

- Moderna Plus Proiektua: proiektu estrategikoagoak dira, eragimen handiagoa dutenak; esate baterako, Moderna Planarekin lortu nahi den aldaketa ekonomikoa.

Moderna Proiektuetarako honako baldintzak eskatzen dira:

- Planeko hiru arlo estrategikoetako batekoa izatea (ekonomia berdea, osasunaren ekonomia edo talentuaren ekonomia).

- Planaren erronkan garatzeko laguntza ematea: hezkuntza, berrikuntza, nazioarteratzea eta enpresa-enplegua.

- Enplegua sortzeko ahalmena izatea.

- Sustatzaileek ere beren funtsak jartzea.

Horrenbestez, ez da alderdi kuantitatiborik ezartzen inbertsioaren, enpleguaren edo jarritako funtsen bolumenari dagokionez.

Moderna Plus proiektuetarako, beste hauek eskatzen dira, gainera:

- Dagozkion sektoreetan proiektu aitzindaria izatea.

- Enpresa-lankidetzako proiektua, zenbait sektoretako enpresak integratuko dituen.

- Berrikuntza proiektuaren osagai indartsua izatea.

- Proiektu mailakagarria izatea, anbizio globalekoa.

- Inbertsioan eta enpleguan eragimen handia duen proiektua izatea.

Praktikan, sistema hau ez da erabili 2012. urtean.

Honakoak dira Moderna proiektuen abantailak:

- Finantzaketarako, abaletarako eta kapitalerako sarbidea, Moderna Planaren finantzaketa ereduaren bitartez.

- "Cluster" bidezko Enpresen arteko lankidetzaren sareetarako sarbidea.

- Fundazioak Nafarroako Gobernuari proposatuko dio zerbitzu eta baliabide publikoak lehenestea, sektore estrategikoei begira (prestakuntza eskaintza, zoruaren sustapena, laguntzak, fiskalitatea).

Finantzaketaren kasuan, hurrengo epigrafean ikusiko dugun bezala, finantza-entitateak dira erabakia hartzen dutenak.

Zigilua emateko prozesua hasten da Moderna Proiektuaren fitxa bat eta, horrekin batera, sustatzailearen dokumentazioa aurkeztuz, proiektua balioetsi ahal dadin. Ondoren, zigiluaren baldintzei buruzko balorazioa egiten du fundazioak. Horretarako, proiektuaren izaera berritzailea, garrantzia edo eragina berretsiko duten txosten teknikoak eskatu ahalko dira. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren laguntza izanen da.

Zigiluaren balioespena egiten duen komitea lau teknikarik eta zuzendariorde batek osatuko dute, eta zigilua emateari buruzko proposamena zehaztuko duen baterako balioespena eginen dute. Proposamen hori zuzendari nagusiari aurkeztuko zaio, bera izanen baita proiektuari Moderna zigilua emanen diona. Zigilua emateko prozesu hori aldizka berraztertuko du Sodenako pertsona batek, Parlamentuak proposatu zuen bezala.

Zigilua eman ondoren, ziurtagiri bat emanen da, zeina hirugarrenei aurkeztu ahalko baitzaie.

Gure ustez zigilua emateko irizpideek ponderazio bat eduki beharko lukete, administrazio publiko oro gidatu behar duten oinarrizko printzipioak bermatzeko lehenetsi nahi denaren arabera.

2012ko martxoaren 20an, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Batzordeak erabaki bat onetsi zuen, zeinak Nafarroako Gobernu premiazten baitu ziurta dezan Moderna zigilua lortu nahi duen proiektu orok ez duela ezinbestean egon beharko plan horretan zehazturiko sektore estrategikoetako batean jasota. Zehazki Gobernu premiazten da Moderna zigilua lortzeko baldintza gisa jar dezan Nafarroan enplegua sortzea edo mantentzea, eta laborpen exekutiboan aipatutako aukera berriak (pertsontentzako zerbitzuak, diseinua, sormena eta segurtasuna) sar ditzan, hiru arlo estrategikoez gainera. Halaber, Nafarroako Gobernu premiazten da kontrol-tresna egokiak ezar ditzan Sodenaren bitartez, ziurtatze aldera Moderna Fundazioaren jarduna akasgabea dela berdintasunaren eta gardentasunaren ikuspuntutik. Alderdi horiek fundazioaren funtzionamenduari gehitu zaizkio.

2012ko abendura arte, honakoa izan da jarduera: 228 Moderna zigilu eman dira, 15 zigilu kalifikatzeko zain zeuden eta 33 ukatu dira. Emandako 228 zigiluek 335,4 milioi euroko inbertsioa sortzen dute, eta inbertsio horretatik ehuneko 57,4 Europako Inbertsio Bankutik lortuko litzateke. 2.812 pertsonaren enplegua kalkulatu da.

Zigilua lortu zuten 228 proiektuek honako ezaugarriak dauzkate:

Emandako zigiluak	Proiektuak	Inbertsioa	EIBren kalkulaturako inbertsioa	Kalkulatutako enplegua	Finantzaketa/inbertsioa ehuneko
Ekonomia berdea	149	193.721.306	146.484.432	1.689	75,62
Osasunaren ekonomia	26	89.682.749	21.328.801	397	23,78
Talentuaren ekonomia	53	52.054.469	24.729.057	726	47,51
Guztira	228	335.458.524	192.542.290	2.812	57,40

Datu horien arabera:

- Ekonomia berdearen arloko inbertsioa da finantzaketa-ehuneko handiena eskatzen duena –aurreikusitakoaren ehuneko 75–; osasunaren ekonomiako proiektuek finantzaketa-ehuneko 24 hartzen dute eta talentuaren ekonomiako proiektuek, azkenik, finantzaketa-ehuneko 47.

- Inbertsioaren guztizkoan, ekonomia berdearen arloko proiektuek ehuneko 58ko inbertsioa suposatzen dute, eta guztizkoaren ehuneko 60 hartzen dute kalkulaturako enpleguetan. Aitzitik, talentuaren ekonomiaren arloan, inbertsioa guztizkoaren ehuneko 15 baizik ez da eta enpleguen ehuneko 47 sortzen dira; horrenbestez, enplegua sortzearen ikuspuntutik inbertsiorik errentagarriena da. Azkenik, osasunaren ekonomiaren arloko proiektuek inbertsio guztiaren ehuneko 27 hartzen dute, baina enpleguaren ehuneko 14 baizik ez dute sortzen.

Fundazioak ez du zigilua duten proiektuen jarraipenerako sistematikarik ezarri. Finantzaketa-erantzukizunak, bankua da arriskua bere gain hartzen duena eta finantzatu beharreko proiektuaren bideragarritasuna erabakitzen duena; baiezkoan, Sodena da Europako Inbertsio Bankuaren mailagun finantzaketa-erantzukizunak arduratzen dena.

V.4.1.5 EIBren ildoak eta abalak

Europako Inbertsio Bankuak (hemendik aurrera, EIB) Sodenarekin adostu zuen 250 milioi euro egiten duen kreditu bat ematea "Moderna Planaren" esparruan egiten diren proiektuak finantzatzeko, zeren eta plan hori Nafarroako Foru Komunitateak oparotasunaren, giza garapenaren eta ekonomiaren ingurumen-iraunkortasunaren mailak handitzeko erabaki duen garapen ekonomikoko eredia baita.

EIBk 100 milioiko kreditu bat eman zion Sodenari, Nafarroako Gobernuaren abalarekin.

Kreditua, osorik, Moderna Planaren esparruko inbertsioak finantzatzera bideratuko da. Gutxienez ere EIBko funtsen ehuneko hirurogeita hamar enpresa txiki eta ertainek (250 enplegatu baino gutxiagoko enpresak) eginiko proiektuetara bideratu behar dira, eta gainerakoak sektore publikoko agintariek eginiko proiektuetara.

Maileguak ehuneko 3,287ko interes finkoa dauka eta epea hamabi urtekoa da, lau urteko ga-bealdiarekin.

Praktikan, honakoa da finantzaketa-ildo horren funtzionamendua:

- Enpresak Moderna zigilua eskatzen du.
- Zigilua lortuta, finantza-entitate batera jotzen du; azken hori izanen da mailegua eman eta enpresari exijitzen dizkion baldintzak ezarriko dituena.
- Behin mailegua emanda, Sodenari, finantza-entitatearen eta enpresa publikoaren artean aurrez hitzarmena sinatu ondoren, EIBren finantzaketa eskatzen dio.
- Sodenak finantza-entitateari gehienez ere inbertsioaren ehuneko 50 ematen dio, ehuneko 3,287ko interes-tasarekin. Finantza-entitateak enpresari gehienez ere ehuneko 5,787ko interes tasa kobratuko dio. Diferentzialaren 2,5 puntu horiek finantza-entitatearentzat dira, hartzen duen arriskua dela eta.
- Finantza-entitateak Sodenari abal bat eskatu ahalko dio eragiketaren berme gisa. Abala ehuneko 30ekoa eta ehuneko 60koa izan ahalko da, baina Sodenak entitate bakoitzeko ehuneko 30eko batez besteko arriskua bermatzen du. Kasu horretan, interesaren diferentziala Sodenaren eta finantza-entitatearen artean partekatzen da.
- Irekitzeko komisioa ehuneko batekoa da, eta horretatik ehuneko 0,70 finantza-entitatearentzat da eta ehuneko 0,30 Sodenarentzat. Ehuneko 0,30 horretatik, heren bat Moderna Fundazioari dagokio, zigiluen tramitazioaren truke.

Azken batez, Sodenak bitartekari eginkizuna betetzen du, EIBren mailegua hartuz eta finantza-entitateei (ez enpresei) maileguak emanez, eta bere gain hartzen du emandako abalei dagokien arriskua.

Hurrengo taulan ikusi ahal dira 2012an eginiko finantzaketa- eta abal-eragiketak, emandako 228 zigiluei dagozkienak:

	Eragiketak	Kopurua EIB	Ehunekoa, guztizkoaren gainean	Moderna Abalaren zenbatekoa	Abalak maileguan emandakoaren gainean egiten duen ehunekoa	Aurreikusitako inbertsioa	Aurreikusitako enplegua
Rural Kutxa	22	7.427.300	45,2	1.687.657	22,7	16.499.609	146,6
Caixabank	13	2.311.520	14,1	681.482	29,5	5.080.183	72,9
Banco Popular	9	2.218.173	13,5	665.482	30,0	4.593.953	64,0
Banco Santander	17	2.424.052	14,8	-	0,0	6.021.284	269,6
Bankinter	3	661.200	4,0	42.900	6,5	1.964.792	47,3
Laboral Kutxa	1	500.000	3,0	150.000	30,0	1.092.400	10,3
BBVA	3	713.564	4,3	214.069	30,0	1.427.128	5,1
Banco Sabadell	1	160.000	1,0	48.000	30,0	953.600	3,2
Eragiketak, guztira	69	16.415.809	100,0	3.489.590	21,3	37.632.949	619

Hau da, erabiltzeko zeuden 100 milioietatik, lehenengo urtean 16,4 milioiko maileguak eta 3,5 milioiko abalak eman dira.

Taulatik ondorioztatzen da EIBren finantzaketako 16,4 milioi horietatik ehuneko 45 Rural Kutxaren bidez izapidetu dela; finantzaketa handiena eman duen hurrengo Banco Santander da, ehuneko 15arekin.

Finantzatutako zenbateko horrek aurreikusitako inbertsioaren ehuneko 44 egiten du.

Gainera, mailegatutako Moderna abalek, 3,5 milioi egiten dutenek, finantzatutako zenbatekoaren ehuneko 21,3 egiten dute oro har.

Aurreikusitako inbertsioaren eta enpleguaren arteko erlazioari dagokionez, ikusten da aurkeztutako aurreikuspenen arabera 60.796 euroko inbertsioa dagoela guztira sortutako enplegu bakoitzeko.

Eragiketa bakoitzeko aurreikusitako inbertsioa 545.405 eurokoa da eta eragiketa bakoitzeko finantzaketa, berriz, 237.910 eurokoa, 500.000 euroko gehienekoarekin eta 142.591 euroko gutxienekoarekin. Eragiketa bakoitzeko aurreikusitako batez besteko enplegua 9 enplegurena da.

Emandako maileguen kopuru txikian eragina izan du, beste arrazoi batzuen artean, finantza-entitateekiko hitzarmenen sinatzea 2012. urtean zehar egin zela; horrek, izan ere, berarekin ekarri du praktikan 2012ko bigarren sei hilekoa baizik ez izatea operatiboa; gainera, asaldura handiko urtea izan da finantza-entitateentzat.

V.4.2. Jarduerak eta proiektuak

Fundazioak, urtero, jarduketa plan bat ezartzen du, helburu eta adierazleekin. Haren jarraipenerako, planak berak jasotzen duenaren arabera:

“Funtsezkoa da emaitzetan oinarritutako balioespen-kultura bat sortzea, eta Planeko helburuen eta adierazleen filosofiari eustea: gutxi, argiak, neurtzen errazak, konparagarriak eta adierazgarriak. Arreta berezia eskaini beharko zaie aginte-koadroaren oinarritzko helburuetan argiro eragiten duten kudeaketa-adierazleen (enpresen sorkuntza, esate baterako) finkapenari, eta ez hainbeste aurretiko jarduera-mailei (eragileekin izandako bilerak). Garrantziari erreparatuta, etengabeko jarraipenerako sistema bat sortuko da, web bidezko sarbidea izan den duena, Patronatuko kideentzat eta arlo bakoitzeko pertsona arduradunentzat”.

Fundazioak emandako informazioaren arabera, jarduera 50 proiektutan banatzen da, gutxi gorabehera; horien artean, besteak beste, honakoak aipa daitezke:

- Nafarroako nekazaritza elikagaien clusterra.
- Construtek (eraikuntza iraunkorra).

- Ibilgailu iraunkorraren clusterra.
- Ingurumenaren eta hondakinen clusterra.
- Medikuntza-aparatuen sektorea.
- Gaixoak erakartzeko proiektua.
- Ekintzaitzaren Mahaia.
- Tuterako Udalaren ekintza plana.
- Konpromisoa eta lidergo publikoa.
- Emozioen hezkuntzari buruzko jardunaldia.
- Nafarroako zirkuitua.

Fundazioaren eginkizuna da proiektu horiek abian jarri eta dinamizatzea, enpresen arteko lankidetzaren bidez proiektuak sortu ahal daitezen.

Oro har, egindako jarduera honela laburbil daiteke: balizko parte-hartzaileen zerrendak egitea; jarduteko plan bat ezartzea; elkarrizketak egitea; enpresek, Administrazioak eta unibertsitateek partaidetza izan dezaketen lantaldeak sortzea, eta aldean arteko akordioak sustatzea.

Logikoa den bezala, horrelako proiektuek ez dute emaitza neurgarririk ematen epe laburrean, eta urtebete ez da emaitza zehatzak eskatzeko moduko epe bat. Egindako lanean, zail gertatzen da betetzearen ehunekoa balioestea; are gehiago, zaila da jakitea emaitzak lortu diren ala ez, batetik helburuak finkatzeko moduarengatik eta, bestetik, egindako balioesteko zailtasun praktikoarengatik.

Bestalde, Moderna Planaren helburuak (ikus V.2 atala) taula batean aurkezten dira, 2015, 2020 eta 2030. urteetarako adierazleekin. Une honetan, Estatu osoan eragina duen krisi ekonomikoak eragin handia du helburu horiek betetzean.

Horri dagokionez, fundazioaren jarduera balioesteko funtsezko faktorea da haren bitartekoak eta eskumenak aztertzea.

Bere helburuak betetzeko (ikus V.3 atala), fundazioak ez du finantzaketa-bitarteko berekirik; bestetik, fundazioaren eskumenak, funtsean honakoetan dautza: jarduketak dinamizatu, sustatu eta koordinatzea. Hartara, ez sorrerako zuzkidurak ez etekinek ez dute balio fundazioaren jardura finantzatzeko, eta aurrekontu orokorren menpekoea da guztiz; izan ere, lehenengo urte honetan behinik behin, ez du sektore pribatuaren baliabiderik lortu.

Eskumenei dagokienez, bistan da fundazioak neurriak edo jarduketak proposa ditzakeela, baina, alde batetik, Nafarroako Gobernuaren departamentuak (hezkuntza, industria ogasuna) dira amaieran sustapen neurriak aintzat hartu, aztertu eta, kasua bada, ezarriko dituztenak, eta, bestetik, enpresak dira proiektu berriei ekiteko beraien artean lankidetzan jardun dezaketen ala ez erabakitzen dutenak.

Fundazioak, horrenbestez, ekimenetan bitartekaritza egiteko eta haiek bultzatu, koordinatu eta sustatzeko eginkizuna betetzen du.

Enpresa txiki eta ertainen proiektuak Europako Inbertsio Bankutik lortutako funtsen bitartez finantzatzeko jarduera Sodena enpresa publikoari laga zaio. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago ezen, egiazki, Sodenak finantza-entitateei laguntzen diela, zeren eta maileguen bitartez finantzaketaren zati bat ematen baitie eta maileguen ehuneko 30 bitarteko abalak har baititzake. Jarduteko modu horrekin, finantza-entitateak dira, azken batean, finantza-arriskuaren zatirik handiena beren gain hartzen dutenak eta Moderna zigiluak lortu dituzten proiektuak finantzatzen dituzten ala ez erabakitzen dutenak.

V.5. FUNDAZIOAREN KONTUAK.

Kanpoko profesionalek ikuskatu dituzte 2012an fundazioaren kontuak, eta horien aldeko iritzia eman dute. Kontu-ikuskaritzatik ondorioztatzen denaren arabera, honakoak dira 2012ko abenduaren 31ko emaitzen kontua:

2012ko abenduaren 31ko emaitzen kontu laburtua		
	(Zor) Hartzeko	
	2012	2011
A) Ekitaldiko soberakina		
1. Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak	609.787	
d) Ekitaldiaren soberakinari egotzitako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	609.787	
5. Hornidurak	(96.827)	
6. Jardueraren bestelako diru-sarrerak	4.590	
7. Langile-gastuak	(383.327)	(8.724)
8. Bestelako ustiatze-gastuak	(152.133)	(646)
9. Ibilgetuaren amortizazioa	(2.090)	
10. Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko emaitzari transferitutakoak	1.114	
A.1) Jardueraren soberakina	(18.886)	(9.371)
14. Diru-sarrera finantzarioak	1	2
15. Finantza-gastuak	(2.623)	
A.2) Finantza-eragiketen soberakina	(2.622)	2
A.3) Zergen aurretiko soberakina	(21.508)	(9.368)
A.4) <i>Ekitaldiaren soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldaketa (galerak eta irabaziak)</i>	(21.508)	(9.368)
B) Zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak		
1. Jasotako diru-laguntzak	10.108	
2. Jasotako dohaintza eta legatuak	1.660.989	
B.1) Ondare garbiaren aldaketa, ondare garbian zuzenean aitortutako diru-sarreraren eta gastuen ondoriozkoa	1.671.097	
C) Ekitaldiko soberakinaren birsailkapenak		
1. Jasotako diru-laguntzak	(1.114)	
C.1) Ondare garbiaren aldaketa, ekitaldiko soberakinean egindako birsailkapenen ondoriozkoa	(1.114)	
D) Ondare garbiaren aldaketa, egotzitako diru-sarreraren eta gastuen ondoriozkoa	1.669.982	
F) Akatsengatiko doikuntzak	10.494	
I) Ondare garbiak ekitaldian zehar izan duen aldaketa	1.658.968	(9.368)

Balantze laburtua, 2012ko abenduaren 31n					
Jardunean	Saldoa 2012-12-31n	Saldoa 2011-12-31n	Ondare garbia eta pasiboa	Saldoa 2012- 12-31n	Saldoa 2011- 12-31n
A) Aktibo ez arrunta	1.676.929		A) Ondare garbia	1.678.442	19.474
I. Ibilgetu ukiezina	11.892		A-1) Funts berekiak	8.459	19.474
III. Ibilgetu materiala	1.665.037		I. Sorrerako zuzkidura	30.000	30.000
B) Aktibo arrunta	271.685	28.844	II. Erreserbak	9.336	(1.158)
III. Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak	271.235		III. Aurreko ekitaldietako soberakinak	(9.368)	
3. Bestelako zordunak	271.235		IV. Ekitaldiko soberakina	(21.508)	(9.368)
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	450	28.844	A-2) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.669.982	
			C) Pasibo korrontea	270.172	9.371
			II. Epe laburreko zorrak	143.423	
			1. Kreditu-entitateekiko zorrak	143.423	
			V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	126.749	9.371
			2. Beste hartzekodunak	126.749	9.371
Aktiboa, guztira	1.984.614	28.844	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	1.948.614	28.844

2011n hasi zen fundazioa jarduten, eta 9.368 euroko galerak izan zituen, ia guztiak langile-gastuei dagozkienak.

Datu horietatik ondorioztatzen denez, 2012an fundazioak 21.508 euro galdu ditu. Entitatearen ondare garbia, 1.660.989 eurokoa, sortu da, funtsean, jarduera gauzatzen den higiezin bateko erabilera-lagapena aktibo gisa kontabilizatzearen kontrapartida gisa, bertan jardunen baitu 18 urteko epe batean: 1.660.989 eurotan kontabilizatu da hori.

Fundazioak ez du finantza-baliabide berekirik bere funtzioan jarduteko; hori dela eta, haren jarduera guztiz dago Nafarroako aurrekontu orokorren bidez egiten zaion ekarpenaren menpean.

Aurrekontuaren ikuspuntutik, fundazioak 1.110.000 euroko aurrekontua onetsi zuen; aurreikusitako diru-sarrerak, berriz, 110.000 eurokoak ziren eta Nafarroako Gobernuak finantzatu beharreko defizita 1.000.000 eurokoa; horretatik, gehienez ere 970.000 euroko kopurua transferentzia arruntetarako da eta 30.000 euroko kopurua, berriz, kapital-transferentzietarako. Finantzaketa hori 2012ko apirilaren 25ean sinatutako hitzarmen batean jaso zen; hitzarmen horretan jasotzen dira, izan ere, horretara bil daitezkeen gastuak, haiek egiaztatzeko bidea eta diru-laguntza ordaintzeko modua.

Politika Ekonomikoaren eta Nazioartekoaren zuzendari nagusiaren abuztuaren 24ko 135/2012 Ebazpenaren bitartez, doikuntza bat egin zen hitzarmen horretan, aurrekontu-doikuntzako irizpi-deak gauzatzeko modu gisa.

Hurrengo taulan, hasierako aurrekontua eta haren aldaketa eta betetzea jaso ditugu:

Gastuak	Kopurua	135/2012 Ebazpena	2012ko behin betiko aurrekontua	Betetzea
Inbertsioak	30.000	-11.300	18.700	18.030
Langile-gastuak	407.859	0	407.859	383.327
Gastu orokorrak	133.441	-11.041	122.400	
Zabalkunde eta komunikazio gastuak	26.000	7.629	33.629	248.960
Proiektuetako gastuak eta planaren ekintzak	512.700	-188.700	324.000	
Finantzarioak				2.623
Gastuak, guztira	1.110.000	-203.412	906.588	652.940
Aurreikusitako bestelako diru-sarrerak	110.000	110.000	110.000	4.590
Defizita	1.000.000	-313.412	796.588	648.350

Datu horien arabera, Nafarroako Gobernuaren gehieneko ekarpena 1.000.000 eurokoa izatetik 796.588 eurokoa izatera pasa da. Nafarroako Gobernuak onartutako guztizko gastua 634.978 eurokoa izan da.

Emitzen kontuaren arabera, honakoak izan dira ekitaldiko gastuak:

Gastuak	Kopurua
Langileak	383.327
Hornidurak	96.827
Beste gastu batzuk	152.133
Finantzarioak	2.623
Guztira	634.910
Ibilgetuaren amortizazioa	2.090
Guztira	637.000

Ez da Nafarroako Gobernutik heldutakoez beste diru-sarrerarik izan. Hori dela eta, 110.000 euroko kontusaila ez da bete, ez bada ikastaroetan izena emateko kuotei dagokien 4.590 euroko kopuruarengatik.

Diru-laguntza ordaintzeko, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzaileak eragozpen-ohar bat aurkeztu zuen. Ondoren, zerbitzu kudeatzaileak eta kontu-hartzailetza orokorrak txosten bana egin zuten desadostasunari buruz. Azkenean, ordaintzeko zeuden kopuruak ordaindu ziren, baina Kontu-hartzaileak honakoa gomendatu zuen:

- 2012ko apirilaren hitzarmenean horretarako sortu zen Koordinazio eta Ikuskapen Batzordeak gehiago kontrolatzea.

- Hurrengo hitzarmenearako, hobeki erregulatzea helburuen betetzeari buruzko mailakatzea dela eta aplikatu beharreko irizpideak, diruz lagundutako jardueraren betetze maila alde batera utzita. “

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

MODERNA FUNDAZIOKO ZUZENDARIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberako lehendakari jauna:

Egindako txostena arretaz irakurri ondoren, Moderna Fundaziotik honako oharrak egin nahi ditugu:

1. Lehenengo, bat gatzoz Ganberarekin Nafarroak epe ertain eta luzeko garapen ekonomikorako plan bat, sektore pribatuak hartan parte hartzeko zabalik dagoena, edukitzeari buruz egiten duen balorazio positiboarekin. Horri dagokionez, nabarmendu nahi dugu Europar Batasunak Nafarroari eta Moderna Planari buruz egin duen aintzatespena. Garrantzi hori aditzera ematen da ez soilik Europako Inbertsio Bankuak jarritako konfiantzan, baizik eta Nafarroa erreferentziako eredu izatean erregioetako garapenerako, bere espezializazio adimentsuko estrategiari esker (RIS3 - "Research & Innovation Smart Specialization Strategy"); izan ere, Batzordeak erabaki du antzeko estrategia bat garatzen ez dutenek ezin izanen dituztela eskuratu 2014-2020 urteetako I+G+B erregio-funtsak. Nafarroa aurreratu egin da, eta horrek aukera ematen dio honezkero funts horiek eskuratzeko. Bigarren ondorio gisa, Nafarroa gai honi buruz beste erregio batzuei aholkua emateko posizioan dago, eta espero dugu alderdi horrek berarekin ekartzea planaren prestaketan metatu duen ezagutzari balioa emateko. Horri dagokionez, Polonia bezalako herrialdeek interesa erakutsi dute Nafarroako eredia ezagutzeko, eta Modernak aholkua emateko eskatu dute. Nafarroa erregioetako espezializazio adimentsuak izan beharko lukeenaren adibidea izaten ari da; halaber, garapen barne-hartzailearen eredu gisa hautematen da. Horri dagokionez, Erregioetako Zuzendaritza Nagusiaren "Panorama" bezalako aldizkariak kontsulta daitezke (http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag39/mag39_en.pdf, página 21); edo, bestela, ikus daiteke Moderna zenbatetan gonbidatua izan den txostengile gisa nazioarteko biltzarretan <http://s3platform.jrc.ec.europa.eu/groningen-workshop> o https://sites.google.com/a/orkestra.deusto.es/rip_2013/).

2. Txostenak dio erregioaren garapen ekonomikorako estrategia bultzatzea sektore publikoaren jarduera tipiko bat dela (9. orrialdea). Izan ere, sektore publikoak bultzada horretan parte hartu beharra dauka eta haren liderra izan behar du, baina ez du ahaztu behar ezin duela hori bakarrik egin, eta estrategiak arrakasta izateko sektore publikoak eginkizun garrantzitsua bete behar duela, alegia, gainerako eragile ekonomiko eta sozialen inplikazioa lortu behar duela. Hori dela eta, Moderna jarduera sektore publikoaren jarduera "tipikoa" ez ezik, Modernan sartuta dauden sektore pribatuko beste eragile batzuen jarduera tipikoa ere bada: enpresak, hezkuntza zentro pribatuak edo sindikatuak.

3. Fundazioaren izaera publiko edo pribatuari dagokionez, adierazi beharra dago hura eratzeko izapidetze administratiboak uneoro errespetatu zuela fundazio publiko baterako behar den prozesua. Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuak interpretatu zuen ezen, entitate pribatuek, Nafarroako Gobernuarekin batera, fundazioaren eraketan izan duten parte-hartzea dela-eta, fundazioak izaera pribatua zuela. Nolanahi ere, Kontuen Ganberak ongi aitortzen duen bezala, fundazioak fundazio publikoek dauzkaten kontrol eta lege beren menpe dago (kontratazio publikoaren araudia, Nafarroako Gobernuak gastuaren kontu-hartzailetzaz arduratzea, Kontuen Ganberaren fiskalizazioa), eta, gainera, Nafarroako Parlamentuaren partaidetza ere badu gobernu-organo guztietan. Halaber, fundazio pribatuei dagozkien fiskalizazio kontrolak betetzen ditu (kontu-ikuskaritza eta Nafarroako Gobernuan erregistratzea). Azkenik, gure webgunean jarduketa-plana eta aurrekontua argitaratzen ditugu, urteko jarduketan oroitidazkiarekin batera (jokabide hori ez da beti gertatzen sektore publikoaren menpeko entitateetan), eta, gainera, urteko oroitidazkiaren aurkezpena egiten dugu, publiko zabalari guztiz irekia.

4. Fundazioaren langile-gastuari dagokionez, garrantzitsua da argitzea ez dela kontratazio berririk egin. Izan ere, langile guztiak enpresa publikoetatik etorri ziren eta enpresa horiek langile horiek galdu zituzten; horrenbestez, ez da langile kopuruaren hazkunderik izan eta ez dago aurrekontu publikoaren menpeko amaierako kopurua handitu. Langile-gastuaren zenbatekoak, txostenean adierazitakoak, gizarte segurantzaren kotizazioak ere hartzen ditu.

5. Finantzaketarako EIB lldoen operatibari eta Abalari dagokionez, adierazi beharra dago operatiba horren egituraketa eta finantza-entitateekiko kontratuen negoziazioa eta sinadura Sodanarekin batera egin zirela. Gure ustez, kreditu-entitateak izan behar dira finantzaketa-eragiketen

arriskuaren zatirik handiena hartzen dutenak, kasu honetan bezala; bestela, arriskua genuke aurrekontu publikoa konpromisoan jartzen duten enpresa bideraezinen eragiketak geure gain hartzeko. Nabarmendu nahi dugu ElBrekiko finantzaketa-ildoak tresna positibo bat izan direla, eta aukera eman dutela bestela baldintza horietan finantzatzeko ez ziren enpresak finantzatzeko.

Moderna zigilua duten proiektuen jarraipena inkesten eta aldizka eginiko deien bitartez egin da. Horrela, Fundazioak egoera eta beharrian jakinen berri izan du, eta haiei azkartasunez eta dinamismoz erantzun die.

Egungo krisi ekonomikoa eragiteko epe laburreko jardueri dagokionez, esan beharra dago Fundazioan zenbait proiektutan lanean ari garela enpresa berriak sortzeko, eta enpresei babesa ematen diegu Nafarroan aberastasuna eta enplegua sor ditzaketen proiektuen finantzaketa lortzeko, bai eta beste enpresa eta erakundeekiko lankidetzaren proiektu batzuetarako sarbidea izateko ere. Horri dagokionez, fundazioa jada garatzen ari da Parlamentuko Enplegu Mahaiak erabakitako neurri batzuk. Gainera, Nafarroaren garapen eredu aldatzera bideratutako jarduketa guztiek, fundazioak bultzatutakoek, eragina dute epe luzean ez ezik, epe labur eta ertainean ere, jardueren oroitidazkiak erakusten duen bezala. Uste dugu epe luzeko proiektuekin lan egitea, epe ertain eta luzeko horizontearekin, modurik onena dela egungo egoera ekonomikoa larrian eragiteko.

Txosteneko azken gomendioari dagokionez, adierazi behar dugu fundazioaren lehenengo urteko oroitidazkian (<http://www.modernanavarra.com/wp-content/uploads/memoria2012fundacionmoderna.pdf>), jarduketa planean ezartzen diren proiektuen emaitzak jasotzen dira, bai eta Moderna Planaren adierazle jarraipena ere. Adierazi beharra dago ezen, txostenak dioenaren aurrean (30. orrialdea), 88 izan ziren 2012an bultzatutako proiektuak, eta haiekin 1.700 pertsona baino gehiago lotu ziren, oroitidazkian bertan aipatzen den bezala. Parte-hartzaile horietatik hamarrek beren esperientzia kontatu zuten urteko txostena aurkezteko jardunaldi publikoan. Jardunaldi hori Kondestablearen Jauregiko Civivoxean egin zen (<http://www.youtube.com/watch?v=a7ZVL7AcDOA>).

Gomendioen azken puntuari dagokionez, ados gaude esaten denean beharrezkoa dela entitate pribatuak urteko finantzaketan sartzea; alabaina, baieztatzen den bezala, fundazioaren jardueren interes orokorra dela eta (zehazki, enpresen lankidetzaren eta Nafarroako garapenaren aldeko apustua egiten da), finantzaketa publikoa behar da. Bere finantzaketa iturriak dibertsifikatzeko, fundazioa Europako finantzaketa lortzen ari da planean proiektu batzuetarako, Europar Batasunean Moderna Planari buruz egiten den balorazio ona aprobetxatuta, eta, era berean, lortzen ari da beste eragile pribatu batzuk gero eta inplika daitezela beren intereseko proiektuetan.

Gure ustez gizarteko esparru guztiek Moderna Planean lankidetzan jarraitu beharra dute, gizarte gisa geure buruari ezarritako helburu partekatuetan hobetzeko eta aurrera egiteko. Moderna Fundazioan beti zabalik gaude gure ekonomia indar dezakeen edozein ideia edo proiektutan lan egiteko, eta eskertzekoak iruditzen zaizkigu norabide horretan hobera egiteko planteamendu guztiak.

Zure lana eskertuz, adeitasunez agurtzen zaitut,

Moderna Fundazioko zuzendaria: Cernin Martínez Yoldi

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Moderna Fundazioko zuzendariak "Moderna Plana (2008-2012)" behin-behineko txostenari buruz egin dituen iruzkinak txosten horretan adierazitakoen azalpen edo zabalpen bat dira eta, horrenbestez, ez dute bera aldatzen.

Horregatik, erabaki dugu haiek txostenari gehitzea eta txostena behin betikotzat jotzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 6an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

